

LIBURUAK



«ALKAR»

Poesías escogidas de Pedro M. Otaño en idioma euskaro

Nik uste det Otañok ez dula parte asko artu orain argitaratudun liburucho ortako bere biursak biltzen. Eta uste det orrela, ez daudelako liburu orretan egillearen itz neurtu onenak. Otañok daki ederki bere itzkuntza eta maitatzendu biotz biotzetik, baña ori ezda naikua biursa onak egiteko. Biursa ez da itzneurtua bakarrik, biursa ez da bersoa bakarrik. Bersoak egiten errez da euskeraz: obe genuke ain errez ez balitz zergatik ala ez litsake ainbeste jende berso egiten asiko, eta ez litzake ainbeste char ikusiko. Baña biursa egitea askoz zallagoa da zergatik biursa on bat egiteko ez da naikua bersodri bukaera iguala ematia, bearda biotzari rnintzatu, beardira egillearen barruko suarekin piztutako gauzak esan asnasa biziarekin irakurtzallearen barruko sua piztu deza-ten; edo bearda biotzari lumatik iges egiten utzi gure biotza mugitu dezan; biarda alaitu enzunlea itzkribatzallea alai bazegon begietara mal-koak atera azi itzkribatillea negarrez bazegon. Eta Otañoreri liburuko biursak ez gaituzte alaitu, ez digute negar egin azi; ez nago liburu or-tan anima alchatu azitzendun lanik, ez da bere orrietan ikusten mal-koak begietara atera azitzenditun biursarik.

Geienetan egilleak itz egitendigu euskera eta euskalerrriaren gañan. Guretzat, mundu ontan diran dontsuenak dira bi gaua oiek baña beti eta toki guztietan ainbeste aldiz aita aspertu egitendu eta geiago, Ota-

ñok egitendun bezela, milla aldiz, eta geienetan gaizki, esan diran gauzak besterik esaten ez badigu aien gañean.

Batasuna, Aitona gizagaisoa, Amets Oat, Amerikako panpetan, Gu ta gu-tarrak Oroitzchoak, Nere kabiya, Zazpiak bat eta Maisubari izendatzen diranak dirudite biurubat bakarra pusketan ausita: eta Nozbait, liburuan jartzeko baña aukeragokua zan kartestalki batian Elizegi-ri bialtzeko Masketak etzaigu batere gustatzen.

Gure ustez Eder bati da liburuan dagon gauzik onena: Chopecha ez dago gaizki era Auntza larrera irakurtuleike; itz laburrian dagona, itz neurtubak baño obe.

Nik uste det ez dala Pello-Mari asarratuko nerekin, ustez egi batzuek esandizkiotzalako. Oraindaño Euskeraz egindako lan guztientzat alabantzak besterik ez dira izan itzkribatzalleak ez atzeratzeagatik, baña bada egiak esateko ordun. Otañok egindeazake liburu ontako biursak baña askoz obiak ¡Laister ikusiko ditugu! Eta bukatzeko. ¿Zergatik Pello-Marik jarri du erderaz liburu orren azala? ¿Zergatik erderaz egin azi du itz-aurrea? ¿Zergatik esaten digu Indice eta Página euskarazko liburu batian? Euskeraz ez dakitenak ez dute euskerazko itz-neurtuaren liburu bateko itzaurrea irakurteko; eta euskera dakigunak geiago nai-genduke euskeraz liburu guztia ikusi.

Maitasun aundian daukat Buenos Aires-ko euskera maisuba; orregatik sentitzendet bere liburucho arren agerkeria, zergatik Otaño liburucho orregatik bakarrik ezagurzendunari dan baño guchiago iduritu-kozaio dala. Eta Euskal-itzkribatzalle on bat da Pelle: baña ez «Alcar» itzkribatudulako.

GREGORIO MUJICA-KOA.

Ondarribian. 1906-garren urteko Agorra.

